

# Soraluzeko Euskararen Plan Estrategikoa

2014ko urtarrila



<b>1. Sarrera</b> .....	<b>3</b>
<b>2. Datu geografikoak</b> .....	<b>4</b>
<b>3. Prozesuaren deskribapena</b> .....	<b>5</b>
3.1. Prozesuaren helburua .....	5
3.2. Prozesuaren eskema eta kronograma .....	6
3.3. Prozesuaren emaitzak .....	8
<b>4. Diagnostikoa</b> .....	<b>10</b>
4.1. Datu kuantitatiboak .....	10
4.2. Lan mahaietako diagnostikoa .....	26
<b>5. Ondorio nagusiak</b> .....	<b>36</b>
5.1. Lan-mahaietako ondorioak .....	36
5.2. Lan-mahaietako ondorioen kontrastea .....	40
5.2. Aurrera begirako erronka nagusiak .....	42
<b>6. ESEP 2014-2018</b> .....	<b>43</b>
6.1. Familia bidezko transmisioa .....	45
6.2. Irakaskuntza .....	48
6.3. Euskalduntzea eta alfabetatzea .....	52
6.4. Administrazioa .....	55
6.5. Arlo sozio-ekonomikoa .....	61
6.6. Aisia eta kirola .....	63
6.7. Liburugintza .....	68
6.8. Kulturgintza .....	70
6.9. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea .....	73
6.10. Hedabideak .....	75
6.11. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak .....	77
6.12. Sentsibilizazioa eta motibazioa .....	78



# 1. Sarrera

Soraluzeko Udalak Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzen jardun du azken urteetan, lehenengoa 2000. urtean onartu zenetik. Hain zuzen ere, azken plan estrategikoa 2010ean onartu zuen, eta 2013 urtera arteko indarraldia zuen. Hortaz, 2014-2018rako plan berriari ekiteko unea du Udalak.

Era berean, 2013ko udaberrian Soraluzeko Udalak “Alkarrakin Soraluze Eginez” prozesua abiatu zuen, eta herritarrak aktibatze mugimendu hori bereziki euskararen gaiak hausnartzeko eta euskararen normalizazioan herritarrak inplikatzeko eta aktibatze erabili nahi izan du Udalak, besteak beste.

Plangintza berria diseinatzeko unea izanik eta herritarren parte hartze prozesu orokorra baliatuz, une ezin egokiagoa da geldialdia egiteko eta eguneroko dinamikatik harantzago begiratzeko; orain arte egindako ibilbidearen kontzientzia hartu, emandako aurrerapausoak aztertu, hutsuneak eta hobetzekoak identifikatu eta, azken batean, egungo egoeraren diagnostikoa egiteko. Geldialdi horrek egiten ari garenaren zentzuan kokatzen laguntzen digu, etorkizunera begira jarraitu beharreko norabidea marrazteko oinarriak edo irakasbideak eskaintzen dizkigu, eta horiek egikaritzeko indar eta energia pertsonal nahiz kolektiboa berpizten laguntzen du.

Halaber, abagune hori aproposa izan ohi da jauzi kualitatiboak emateko. Esate baterako, herrian euskararen aldeko sentsibilizazio-lana egiteko, euskararen aldeko jarrerak, jokabideak eta konpromisoak aktibatze, edota euskararen garapenaren aldeko lanean diharduten udalerriko elkarte eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren areagotze. Azken batean, hizkuntza-komunitatea egituratu eta sendotzeko.

Soraluzeko Udalak plangintza batetik besterako epealdi hau baliatu du hizkuntzaren inguruan gizarte-gogoeta eragiteko. Euskararen Plan Estrategiko berria diseinatzeko, etorkizuneko marko berria ezartzeko, herriko eragileak eta herritarrak kontuan hartu nahi izan ditu: hurrengo urteetarako plangintza diseinatzerakoan, eurekin batera landu eta iritziak eta ekarpenak aintzat hartu.

Eginkizun horretarako, Soraluzeko Udalak egokitzen jo du kanpo aholkularien laguntza eta Elhuyar Aholkularitzarekin harremanetan jarri da. Elhuyar Aholkularitzak honako txosten honetan jaso ditu diagnostikoa eta diseinua egiteko lanaren ondorioak eta emaitzak.




## 2. Datu geografikoak

Soraluze (Gipuzkoa) Debabarrenako udalerrria da. 14,1 km<sup>2</sup> ditu eta 2008an 4.029 biztanle zituen. Biztanleria dentsitatea 283,33 biztanle kilometro koadrokoa da. Deba ibaiak herria erditik zeharkatzen du, ibaiak zeharkatzen duen Debabarreneko lehen herria da eta itsas mailatik 110,38 metrora dago.

Bere sorreratik, 1343. urtetik hain zuzen, armagintzari lotutako herria izan da Soraluze. Horregatik datorkio gaztelaniatzko izenaren azken zatia, "de las Armas".

Soraluzek muga egiten du Debabarrena eta Debagoiena eskualdeekin, eta Urolako bailara ere badu bere ekialdean. Gainera, herri hauekin egiten du muga: ipar eta ekialdean Elgoibarrekin, hegoaldean Bergararekin eta mendebaldean Eibarrekin. Iparraldean Maltzagan egiten du bat Elgoibar eta Eibarrekin. Ekialdean, Irukurtzeta mendian lotzen dira Azkoitia, Elgoibar, Bergara eta Soraluze.

Demografia:





## 3. Prozesua

### 3.1. Prozesuaren helburuak

Soraluzeko Udalak euskararen plan estrategikoa diseinatzeko eskatutako proposamenaren helburu nagusia hauxe izango da:

**Soraluzeko gizarte-eragileekin batera, gaur egungo euskararen egoeraren argazkia egitea eta datozen urteetarako Plan Estrategikoa diseinatzea**

#### Zehatzak:

- Gizarte-eragileak euskararen egoeraz jabetzea.
- Euskara Aholku Batzordean herriko eragileen ordezkariak zabaltzea eta handitzea eta EABko funtzionamendurako dinamikak aktibatzea (informazio batzorde izatetik, lantalde izatera).
- Euskara Biziberritzeko Planaren balantzea egitea eta ondorioak ateratzea: esparru estrategikoetan garatu diren ekintzen oihartzuna eta eragina baloratzea, ondo egindakoak identifikatzea eta hutsuneak edo hobetzekoak atzematea.
- Gizarte-eragileek beren sektoreko diagnostikoa egitea.
- Etorkizunera begira, Soraluzeko udalerrian euskararen erabilerak gora egiteko aukerak eta bideak identifikatzea; eta, horren arabera, plan estrategikoaren ildo nagusiak adostasunez finkatzea.
- Herritarren eta udal agintarien artean elkarlanerako gune berriak zabaltzea eta parte hartzeko kultura sustatzea, euskararen plan estrategikoa egiterakoan herritarrak subjektu aktibo bihurtuz.



## 3. Prozesua

### 3.2 Prozesuaren eskema eta kronograma

Arestian aipatutako helburuak lortzeko, hona hemen modu grafikoan jarraitu den lan-prozedura:

GAIA	EKINTZA
<b>1. AURRELANAK</b> ...	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ PROZESUA ANTOLATU:<ul style="list-style-type: none"><li>- Prozesua eta lan-egutegia adostu.</li><li>- Komunikazio-plana diseinatu eta martxan jarri.</li><li>- Batzorde Teknikoari prozesua aurkeztu.</li><li>- Lan-taldeen osaera adostu.</li></ul></li></ul>
<b>2. DATUAK BATZEA</b> ...	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Datuak batzea:<ul style="list-style-type: none"><li>- Egitasmoarekin lotutako dokumentazioa bildu eta aztertu.</li><li>- EBPNk jasotzen dituen gaien eta itemetarako datu kuantitatiboak batzea: familia, euskalduntze-prestakuntza, irakaskuntza, administrazioa, lan-mundua, aisia, kirola, kulturgintza, komunikabideak eta teknologia berriak.</li></ul></li></ul>
<b>3. BALORAZIOA ETA DIAGNOSTIKOA</b> ...	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Herritarrekin 1. batzarra: udalerriko egoeraren balorazioa egin eta diagnostikoa osatu.</li><li>▪ Batzorde Teknikoarekin batzarra: lan-taldeetan egindako lana borobildu eta ikuspegi integrala eman.</li></ul>
<b>4. PLAN ESTRATEGIKOA DISEINATZEA</b> ...	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Herritarrekin 2. batzarra: landu beharrekoak eta moduak herritarrekin batera adostu.</li><li>▪ Batzorde Teknikoaren batzarra: lan-taldeetan egindako lana borobildu eta ikuspegi integrala eman.</li></ul>
<b>5. PROZESUA IXTEA</b> ...	<ul style="list-style-type: none"><li>▪ Prozesuaren txostena lantzea eta aurkeztea</li></ul>



## 3. Prozesua

Komunikazio-plana Batzorde Teknikoan landu zen, eta hemen egindako komunikazio-ekintzak:

<b>PROZESUA ABIATZEKO KOMUNIKAZIOA:EGITASMOA ABIAN JARRIKO DELA GIZARTERATZEKO EKINTZAK ...❖</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Eragileei gutuna bidali.</li><li>• Pentsaurrekoa egin.</li><li>• Kartelak ezarri herriko gune estrategikoetan.</li><li>• Webgunean informazioa jarri.</li><li>• Bisitak edo aurrez aurreko aurkezpen-saioak egin.</li><li>• Sare sozialak.</li></ul>
<b>EGITASMOAREN GARAPENA EGIN BEHARREKO KOMUNIKAZIOA ...❖</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Herriko eragileekin harremanetan jarri.</li><li>• Eragileei telefono-deiak egin.</li><li>• Gutun pertsonalizatuak bidali.</li><li>• Komunikabideetara prentsa-oharrak bidali.</li><li>• Parte hartzeko bide berriak zabaldu: foroak, on-line galdetegiak, zeharkako parte-hartzeak</li></ul>
<b>EGINDAKO LANAREN INGURUKO KOMUNIKAZIOA ...❖</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Parte-hartzaileei egindako lanaren txostena bidali.</li><li>• Plana diseinatzerako orduan, parte-hartzaileei eurek egindako proposamenekin hartutako erabakiak jakinarazi (aktak, aurkezpena, gutuna...).</li><li>• Jendaurreko aurkezpena.</li><li>• Komunikabideetara prentsa-oharrak bidali</li></ul>



### 3.3. Prozesuaren emaitzak: lan-mahaiak eta parte hartzea

#### Lehenengo lan-saioa

Lehenengo bileran, Soraluzeko azken urteetako euskararen ibilbidearen balorazioa egin dugu, egindako lanean eta gaur egungo diagnostikoan oinarrituta. Azken finean, Soraluzen euskararen egoerari buruzko gogoeta egin dugu: ahulguneei eta indarguneei erreparatzea helburua izanik.

Lana bideratzeko, parte-hartzaile guztiak leku eta ordu berean elkartu ditugu, baina lanketarako talde txikiak egin ditugu, gaikako lan-mahaiak.

Lan-mahaiak honako hauek izan dira:

- Hezkuntza
- Hizkuntza Politika
- Lan-mundua
- Gazteak
- Elkarteak
- Euskararen lagunak: euskara ikas dauden pertsonak eta euskara ez dakitenak.



**69 lagunek** hartu dute parte

Ondoren, Batzorde teknikoak egindako balorazioari ikuspegi osatua eman dio diagnostikoari, lan-mahaietan egin diren ekarpenak aintzat hartuta.

#### Bigarren lan-saioa:

Diagnostikoan eta balorazioan jasotako hausnarketak eta ondorioak aintzat hartuta, datozen urteetarako Soraluzen euskarak izango duen ibilbidea proposatu dugu bigarren batzar honetan.

Bigarren saio honetako lan-mahaiak segidakoak izan dira:

- Hezkuntza formala
- Hezkuntza ez formala
- Elkarteak





### 3. Prozesua

- Hizkuntza-politika: euskaltzaleen antolaketa
- Hizkuntza-politika: erabilera-plana
- Lan-mundua
- Gazteak
- Euskararen lagunak

Bigarren saioan, **66 lagunek** parte hartu dute.

Guztira, **84 pertsona ezberdinek** parte hartu dute prozesuan: % 58 emakumezkoak izan dira; eta beste % 42 gizonzkoak.

Lan-mahaien osaera eta generoari dagokionez, Hezkuntzaren eta Elkarteen lan-mahaietan emakumezko gehiago izan dira gizonak baino; eta Hizkuntza-politika landu den taldean gizon gehiago emakumeak baino. Beste lantaldeetan gizon eta emakumeen presentzia orekatuta izan da.

Lan-mahaietako partaideen generoa eta batz besteko adina:

	1.SAIOA		2.SAIOA		Bataz besteko adina
	Emakumea	Gizona	Emakumea	Gizona	
GAZTEAK	5	5	6	6	24
ELKARTEAK	7	3	5	1	41
HEZKUNTZA	17	5	18	3	42
LAN- MUNDUA	4	4	4	4	45
HIZKUNTZA POLITIKA	2	9	4	9	44
EUSKARALAGUNAK	3	5	4	2	44
GUZTIRA	38	31	41	25	41



## 4. Diagnostikoa

Ondorengo orrietan Soralezeko euskararen egoeraren berri jasoko dugu datuetan. Lehendabizi, datu kuantitatiboak aurkeztuko ditugu, datu orokorrak eta esparruka. Eta, ondoren, datu kualitatiboak, batez ere, herritarrekin egindako lan-saioetatik jasotakoak.

### 4.1. Datu kuantitatiboak:

#### Datu orokorrak

##### Euskara zerbitzua

Euskara zerbitzuaren aurrekontua guztira		63.985 €
Euskara zerbitzuaren baliabideak:	Pertsona kop.:	1,00
	Ordu kop.	530,00

##### Biztanleria

Udalerriko biztanleria		4.019,00
Biztanleria adin taldeka:	Biztanleria <19 (%)	15,60
	Biztanleria 20-65 (%)	62,70
	Biztanleria > 65 (%)	21,70
Biztanleriaren dentsitatea (Bizt./Km2)		0,29
Biztanleria jaioterriaren arabera:	Biztanleria egoiliarra. EAEn jaiok	71,30
	Beste probintzietan jaiok (%)	19,80
	Atzerrian jaiok (%)	08,90

##### Enplegua

Nekazaritza (kop)	9
Industria (kop.)	669
Eraikuntza (kop.)	125
Zerbitzuak (kop.)	868



## 4. Diagnostikoa

### Datuak esparruka

#### Familia

Derrigorrezko hezkuntza sisteman sartzean, ama hizkuntza euskara duten haurren (%)		45.00
Etxean erabiltzen den hizkuntza	Euskara (%)	30.45
	Euskara eta gaztelania (%)	12.90
	Gaztelania (%)	54.45
	Beste bat (%)	2.20
Lehen hizkuntza	Guztira(kop.)	3.954
	Euskara (kop.)	1.653
	Euskara eta gaztelania (kop.)	225
	Gaztelania (kop.)	1.843
	Beste bat (kop.)	233
Hizkuntzaren bilakaera (>5urte) adinaren arabera	Guztira(kop.)	3.804
	Euskaldun zaharrak (kop.)	1.646
	Jatorrizko elebidunak (kop.)	115
	Euskaldun berriak (kop)	483
	Partzialki euskaldun berriak (kop)	401
	Partzialki erdaldunduak (kop.)	91
	Gutziz erdaldunduak (kop.)	40
	Erdaldun zaharrak (kop.)	1.028


### Ekintzak: alor honetan herrian antolatutakoak (udalak, euskara elkarteak...)

- Derrigorrezkoa ez den ikastaldian (0-3 urte) euskarazko hartzaindegiak eta haur-eskolak eskaini.
- Familia osatu behar duten eta osatu berria duten bikoteak euskalduntzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak. Informazio esku-orriak eta CDak bidali.
- Familia osatu aurretik
- Gurasoei euskara ikasteko diru-laguntzak eman.
- Gurasoentzako hitzaldiak transmisioaren garrantziaz.




## 4. Diagnostikoa


### Ama-hizkuntza 2011




### Ama-hizkuntza



### Etxean erabiltzen den hizkuntza 2011



### Etxean erabiltzen den hizkuntza





## 4. Diagnostikoa

### Euskalduntzea-Prestakuntza

Ikasle kopurua herriko euskaltegietan		34
Ikasleak/ (erdaldunak+ia euskaldunak)		0.020
Ikasleei eskainitako diru-laguntzak, guztira		13.375
Xede bereziekin antolatutako ikastaro kopurua (gurasoak, etorkinak...)		1
Xede bereziko ikastaroetako ikasle kopurua		16
Ikasleen jarraitasun-tasa		%87
Biztanleriaren hizkuntza gaitasuna:	Elebidunak (%)	56.8
	Elebidun hartzaileak (%)	20.8
	Erdaldun elebakarrak (%)	22.4
Euskal hiztunen alfabetatze maila	Alfabetatuak (%)	73.8
	Erdizka alfabetatuak (%)	22.7
	Alfabetatu gabeak (%)	3.5
Orokorrean, kaleko euskararen erabilera (%)		33.55
Ikasleen matrikulazioaren eta bermatrikulazioaren bilakaera, mailaren arabera(*)		
Udalak ikasleei diruz laguntzek finantzatzen duen zenbatekoa(*)		

(\*) Matrikulazioa:

- 11/12 ikasturtea: A1-A2 5, B1-B2 15, C1 5. Guztira: 55
- 12/13 ikasturtea: A1-A2 12, B1-B2 10, C1 8. Guztira: 40
- 13/14 ikasturtea: A1-A2 6, B1-B2 13, C1 5. Guztira: 33

Bukatu dutenak:

- 11/12 ikasturtea: 21
- 12/13 ikasturtea: 26

Birmatrikulazioa:

- 11/12 ikasturtea: %68)
- 12/13 ikasturtea: %70)
- 13/14 ikasturtea: %56

(\*) Diru-laguntzak: guraso, dendari, ikasle, pentsiodun, langabe eta errenta baxuak %100  
Langileak %50


**Ekintzak: alor honetan herrian antolatutakoak (udalak, euskara elkarteak...)**

- Euskara ikasteko diru-laguntzak.
- Berbalaguna.
- Etorkinentzako euskara ikastaroak.




## 4. Diagnostikoa


### Hizkuntza-gaitasuna 2011



### Hizkuntza-gaitasuna



### Kale-erabilera 2012





## 4. Diagnostikoa

### Irakaskuntza

0-3 urte bitarteko udalerriko haur kopurua	158
0-3 bitarteko plaza kopurua euskaraz	61
0-3 bitarteko matrikulazioa euskaraz (%)	%100
Haur eta Lehen Hezkuntzako plaza kopurua D ereduan	323
Haur eta Lehen Hezkuntzako matrikulazioa D ereduan (%)	100
DBHko plaza kopurua D ereduan	113
DBHko matrikulazioa D ereduan (%)	%84
Etorri berrien matrikulazioa D ereduetan (%) (*)	

(\*) Haur eta Lehen Hezkuntzan % 100. Hizkuntza indartzeko errefortzuaz.

Bigarren Hezkuntzan B eredia aukeratzen dute. Hizkuntza indartzeko errefortzuaz.

Eskolaz kanpoko prestakuntza euskaraz, edo gehienbat euskaraz, ematen dituzten akademiak (%) (*)	
--	--

(\*) Eskolaz kanpoko prestakuntza-eskaintza txikia da. Hala ere ez daukagu beroni buruzko datu zehatzik. Eskola-partikularrak, dakigula behintzat, euskaraz ematen dituzte dauden “akademia” apurrek. Ingelesaren irakaskuntza gazteleraz burutzen da, bai eta pinturakoa ere. Dantza, kirol eta antzerkiaren inguruko jarduerak euskaraz burutzen dira.

### Ekintzak: alor honetan herrian antolatutakoak (udalak, euskara elkarteak...)

- Irakaskuntza sisteman sartzear dauden gurasoei komunikazioa euskarazko irakaskuntzaren abantailak azalduz.
- Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroetarako diru-laguntzak eskaini.
- Nafarroa eta Iparraldeko ikastolen jaiak diruz lagundu.
- Ikastetxeetako euskararen normalizazio planak.
- Ahozko adierazpena indartzeko ekintzak (“Lagun arteko hizkerarekin jolasean” eta “Gu ere bertsotan”).



## 4. Diagnostikoa

### Administrazioa

Dagokion hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten langileak (%)	92.6
Itzulpen-kopurua	
Erdaratu:	%10
Euskaratu:	%80
Zuzenketa-kopurua	%5
Herritarren hizkuntza udalarekin	
<b>Idatziz</b>	
Eus: %9.2	
Elebi:	
Gazt: %90.8	
<b>Ahoz (leihatilako harremana)</b>	
Lehen harremana. Eus: %30 ; Gazt: %70	
Ondorengo elkarrizketa. Eus: %5	
Euskararen erabilera	
<b>Idatziz</b>	
Kanpo harremanak: %40	
Barne harremanak: %25	
<b>Ahoz</b>	
Kanpo harremanak: %30	
Barne harremanak: %65	

#### Ekintzak: alor honetan herrian antolatutakoak (udalak, euskara elkarteak...)

- Diru-laguntzak banatzeko deialdietan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak eskaini.
- Langileen kontratazioetan hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Langileentzako trebakuntza saioak eskaini.


OHARRAK: Udal barruko euskararen erabilera planak gabezia asko ditu. Lanpostuetako askok gaztelaniaz ekoizten jarraitzen dute eta itzulpenen morrontza handia da. Ahaleginak egin dira dinamika horietako zenbait aldatzeko, trebakuntza saioekin, baina saiook ez dute behar zuten emaitzarik eman. Ahozkoan egoera zertxobait hobea dela esan liteke, nahiz eta gaztelaniaren presentzia, zenbait sailetan batez ere, handia den.






## 4. Diagnostikoa


### Herritarren hizkuntza udalarekin



### Udalaren erabilera, idatziz



### Udalaren erabilera ahoz





## 4. Diagnostikoa

### Lan-mundua

Udalerriko enpresak, guztira	28
Euskara-plana duten enpresak (%)	0
Enpresei euskara-planak sustatzeko emandako diru-laguntzak (*)	0

Merkataritza eta ostalaritza arloko establezimenduak, guztira	30
Udalak antolatutako egitasmoan parte hartzen duten establezimenduak (%)	75

Errotuluak euskaratzeko laguntzen zenbateko osoa (**)	300
Errotuluak euskaratzeko laguntzak jaso dituztenen kopurua (**)	
Bestelako laguntzak eskatu dituzten kopurua	10

### Ekintzak: alor honetan herrian antolatutakoak (udalak, euskara elkarteak...)

- Diru-laguntzak euskarazko errotuluak jartzeko.
- Informazioa eta laguntza (itzulpenak, zuzenketak...) dendariei euskara erabiltzeko.
- Euskara ikasteko diru-laguntzak merkatariei.
- Euskara planen inguruko informazioa enpresei.

(\*) Udalak "Ardatza" izeneko egitasmoa burutu zuen duela urte batzuk, enpresak euskara planak abian jartzera anima zitezen. Herriko 5 enpresa handienak bisitatu ziren, baina ez zen lortu inork euskara planak martxan jartzea.

(\*\*) Urteetan 600 euro bideratu dira zeregin horretara. Aurten, baina, 300 euroko kontu-saila jaso da aurrekontuan. Iaz ez zen errotuluak aldatzeko laguntza eskaerarik jaso, duela 3 urte, ordea, 2 izan ziren bideratu zirenak. Aurreragoko urteetan ere 1 edo 2 izan dira eskaera.

(\*\*\*) Merkataritza Elkartean dauden 23 establezimenduetako langileen artean %61,4 dira euskaldunak. Langile guztiak euskaldunak dituzten establezimenduak %50 dira.



## 4. Diagnostikoa

### Aisia

Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten aisialdi-taldeak (%)	100
Udalak euskaraz antolatzen dituen aisialdi-ekimenak (%)	100

### Ekintzak: alor honetan herrian antolatutakoak (udalak, euskara elkarteak...)

- Aisialdiko begiraleentzako formazio ikastaroak.
- Udalaren menpeko aisialdi guneetan (Ludoteka, gaztetxokoa) euskarazko saioak bermatu.
- Udalekuak antolatu.
- “Gurian be euskaraz bai” egitasmoa elkarte gastronomikoetan (Hitzarmenak, itzulpenak, programa informatikoetarako diru-laguntzak...)

OHARRAK: Haur eta gazteekin diharduten aisialdi elkarteek gain, badira herrian helduei zuzendutako elkarteak (Elkarte Gastronomikoak). Bertan euskararen presentzia areagotzeko ahalegina egiten dihardu udalak azken urteetan. Aipatu elkarteetako zenbaitetan eguneroko dinamika gaztelaniazkoa da, ahozkoan zein idatzizkoan.



## 4. Diagnostikoa

### Kirola

Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten kirol taldeak/klub-ak (%)	50
Kirol taldeetan euskaraz dakiten begiraleen presentzia (%)	80
Herriko kiroldegian euskaraz eskaintzen diren kirol ikastaroak (%)	30
Herriko kiroldegian euskarazko ikastaroetan partaidetza (%)	36
Euskararen presentzia herriko kirol gune nagusietako paisaian (%)	100
Erabiltzaileen hizkuntza-gaitasuna (*)	

### Ekintzak: alor honetan herrian antolatutakoak (udalak, euskara elkarteak...)

- Kiroldegiko ikastaroetan euskararen erabileran eragin.
- Kirol taldeek eta begiraleek erabiltzen duten euskarazko materiala sortu.
- Futbol Eskolako euskararen erabileran eragin.
- Kirolean euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintzak bideratu.

(\*) Ulertu ongi %66,4; Nahikoa ongi %8,4; Zertxobait %13,4, Ezer ez %11,8.

OHARRAK: Kirol talde gutxi daude herrian eta tamainaz oso ezberdinak dira. Kirolari gehien daukan taldea futbol taldea da. Berau da euskarari dagokionean egoerarik kaskarrena erakusten duena. Ia bere osotasunean bere jarduna gazteleraz burutzen du elkarte honek



## 4. Diagnostikoa

### Kulturgintza

Kultur programazioan euskaraz antolatutako ekimenak	%65
Euskaraz antolatutako ekimenetan partaidetza (%)	-----
Euskaraz, edo batez ere euskaraz, funtzionatzen duten kultur taldeak (%)	%75
Herritarren euskarazko kultur ekoizpenak sustatzera bideratutako baliabideak	(*)
Lagundutako ekoizpen/proiektu kopurua	
Lagundutako pertsona/talde kopurua	
Udal liburutegian euskaraz erabilgarri dauden irakurgaiak (%)	% 42
Liburutegian herritarrek euskaraz hartutako irakurgaiak (%)	% 30
Sortu eta hedatutako produktu kopurua euskarria edozein delarik ere	-----
Informazio honen hedapenera zuzendutako ekimen kopurua	-----
Sinesmen-mota guztiak aintzat hartuta, erlijio saioak guztira. (**)	7
Sinesmen-mota guztietako erlijio saioak aintzat hartuta, euskararen erabilera	%70
Sinesmen-mota guztiak aintzat hartuta, euskarazko erlijio saioetako partaidetza (%)	-----

### Ekintzak: alor honetan herrian antolatutakoak (udalak, euskara elkarteak...)

- Euskal literaturaren zaletasuna bultzatzeko ekitaldiak antolatu.
- Literatur lehiaketak burutu.
- Euskarazko kultur ekintzak antolatu ( Antzerkia, zinea, bertsolaritza...)
- Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatu.
- Euskarazko jostailu eta liburuen katalogoa argitaratu.

(\*) Oso zaila da euskarazko kultur ekoizpenak sustatzera bideratutako baliabideak zenbat diren jakitea. Espresuki horretara bideratutako kopurua 21.000 eurokoa da, herriko euskara elkarteak jasotzen duena. Badira, baina, beren ekoizpenaren zati bat euskaraz burutzen duten hainbat elkarte ere, baina hori kalkulatzea oso zaila egiten zaigu.

(\*\*) Elizkizunak elebitan egiten dira, nahiz eta euskara gehiago erabiltzen den gaztelera baino. Kristau ikasbideko saioak gaztelaniaz ematen zaizkie gurasoei eta euskaraz umeei, nahiz eta hezitzaileen hizkuntza ezagutzaren arabera gaztelaniaz diharduten taldeak ere egon badauden.



## 4. Diagnostikoa


### Gazteak (16-23)

Kaleko euskararen erabilera gazteen artean (%)	24,20
--	-------


**Ekintzak:** alor honetan herrian antolatutakoak (udalak, euskara elkarteak...)

2006an egindako azterketaren datuak:


### Erdaraz euskaraz baino gehiago



### Hizkuntzen erabilera



### Gaztearen interesa euskararekiko





## 4. Diagnostikoa

### Etorkinak

Etorkin-kopurua azken urteetan (*)	%8,8
------------------------------------	------

#### Ekintzak: alor honetan herrian antolatutakoak (udalak, euskara elkarteak...)

- Etorkinentzako harrera-plana (Eskutitza eta hiztegia bidali).
- AISA ikastaroak.

(\*) Azken urteetan gora egin du nabarmen etorkinen kopuruak. 2003. urtean biztanleen %2,6 ziren etorkinak eta 10 urte beranduago %8,8.

(\*\*) Euskaltegian apenas ibili da eta dabil etorkinik ohiko taldeetan. Tarteka etorkinentzako ikastaro bereziak antolatzen ditu Udalak. Azaroan hasiko den ikastaroan 15 etorkin daude izena emanda. Azken ikastaroa duela 2 urte antolatu zen.



## 4. Diagnostikoa

### Komunikabideak

Euskara hutsezko komunikabideak (%) (*)	100
Euskararen erabilera euskara hutsezkoak ez diren tokian tokiko komunikabideetan (%)	%10
<b>Berria</b> Harpidedunak: 22 Kioskoko salmenta: 6 Irakurle kopurua: batez beste, hiru irakurle egunkari bakoitzeko: 84 <b>Plaentxia.com (**)</b> Erabiltzaileak: 100	

Udalak eta bere menpeko erakundeek euskaraz argitaratutako publizitatea (%)	50
Enpresa, merkatari eta elkarteei eskainitako baliabideak publizitatea euskaraz egiteko	0

### Ekintzak: alor honetan herrian antolatutakoak (udalak, euskara elkarteak...)

- Euskarazko herri aldizkaria diruz lagundu.
- Euskarazko atari digitala diruz lagundu.

(\*) Tokian tokiko komunikabide bakarra dago eta euskaraz argitaratzen da. Gainontzean probintzia edo nazio mailako bi egunkarik dute herriari buruzko txokoa eta hor euskararen presentzia oso txikia da.

(\*\*) Plaentxia.com atariak 100 sarrera ditu egunean batz beste eta 550 lagun facebooken.





## 4. Diagnostikoa

### Teknologia berriak

Udaleko web orrira euskaraz egiten diren sarrerak (%)	-----
Udalaren euskara txokora egiten diren sarrerak	Ez dago
Sarean euskararen presentzia gehitzera bideratutako baliabide kopurua	(*)
Udal liburutegiko teknologia berrietan oinarritutako euskarazko materialak (%)	-----
Udal liburutegiko teknologia berrietan oinarritutako euskarazko materialaren erabilera (%)	-----

**Ekintzak: alor honetan herrian antolatutakoak (udalak, euskara elkarteak...)**

(\*) Udalak 6.350 euro bideratzen ditu euskarazko aldizkaria eta euskarazko atari digitala finantzatzen laguntzeko.



## 4. Diagnostikoa

### 4.2. Lan-mahaietako diagnostikoa:

Ondorengo tauletan Soraluzeko euskarak dituen indarguneak eta ahulguneak jaso ditugu. Bilketa horretarako, batetik, herritarrekin batera egindako hausnarketa hartu dugu oinarri; eta, bestetik, datuen argitan prozesua antolatzeko batzorde teknikoak egindakoak jaso ditugu. Herritarrekin egindako prozesuan, sei lan-mahai antolatu ditugu eta ondorioak ere horrela jaso ditugu.

Kontuan hartu behar dugu, esku artean izandako datuetan oinarritutako iritziak eta pertzepzio subjektiboak direla pertsona bakoitzak bere izenean egindakoan. Txosten hau irakurtzen dutenek baliteke euren interpretazioa eta pertzepzioa ez ikustea islatuta. Dena den, lan-mahaietan esandakoak jaso ditugu hemen, iritzi eta ikuspegi anitzak eta askotarikoak.

Lehenengo ariketa moduan, galdera hau egin genuen herritarrekin:

- Soraluzeko euskara animalia balitz, zein izango litzateke?

<b>Hezkuntza</b>
KARAKOLA / MARRASKILOA NAGIA (perezoso) izan zuen lehiakide. Mugitzea eta gauzak egitea kostatzen zaionagatik.
<b>Elkarteak</b>
KATUA: nagitsua, baina bizia, silbestrea SARDINA: banaka ahula, baina taldean indartsua da, bidea egiten du HARTZA: handia, baina gutxi ikusten da. Babestu beharrekoa
<b>Gazteak</b>
KAMALEOIA: aldakorra da HONTZA: inguru oso ezberdinetan topa liteke, asko entzun baina gutxi ikusten da KATAMOTZ IBERIARRA: galeran dago TXAKURRA: etxekoa da AZERIA: mendian bizi da, tarteka herrigunean azaltzen z
<b>Lan-mundua</b>
KARAKOLA / MARRASKILOA : KARRAMARROA: atzeraka ibiltzearen kontuagatik. Baina atzera ez zela egin esan zuten, baina ikastolaren bateratzearekin badago atzerakada-sentsazioa...
<b>Hizkuntza-politika</b>
KARAKOLA / MARRASKILOA: etxea soinean, poliki-poliki beti aurrera. Hauskorra ere bada. Herrian hainbat egitasmoren ikurra (izan) da: ikastola, pil-pilean, musika-eskola... KARRAMARROA: atzeraka dabil



## 4. Diagnostikoa

HEZKUNTZA: ONDORIOAK	
INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Ikasle elebidunek emaitza hobeak dituzte hizkuntza komunikazio gaitasunean</li><li>• ourtetik 16 urtera arte ia denek dakite euskaraz</li><li>• Etorkinak etortzen direnean, soporte moduan eskaintzen diren irakasleak</li><li>• Herri txiki bat izatean gutxi batzuen portaera aldaketak izan ahal duen inpaktu handia.</li><li>• Gazteen hizkuntza gaitasuna</li><li>• Jende heldu asko prest egongo litzateke euskara ikasteko.</li><li>• Ikastetxeek lan eskerga egiten dute normalizazioaren alde</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ume euskal hiztunek 3.mailan edo adinarekin batera erdara beste posibilitate berri baten moduan ikusten dute.</li><li>• Haurren portzentaje oso handi bat euskara ez dakiela eskolaratzeen da</li><li>• Haur eta gazte gehienek errazago berba egiten dute gazteleraz euskaraz baino, eta horrek erabileran zuzenean eragiten du</li><li>• Gurasoenganako komunikazioa sinplifikatu</li><li>• Eskolak elkartzekoan erdara gainera ipini da.</li><li>• Euskaldunak ez direnek ematen dioten balore falta</li><li>• Hizkuntza gutxitu bat izatearen handikapa</li><li>• Familian ez zaio garrantzia nahiko ematen.</li><li>• Hezkuntza ez formalean egiteko dagoen lan guztia</li><li>• Etorkinen kopuruak oso handiak dira eta horiek guztiak euskalduntzeko baliabide gehiago behar da, nola ikastetxeetan, hala hezkuntza ez formaleko ekintzetan</li></ul>




## 4. Diagnostikoa

ELKARTEAK: ONDORIOAK	
INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Ekintza ugari antolatzen dira euskaraz</li><li>• Elkartetara hurbiltzen garenean, hasierako jarrera positiboa da</li><li>• Kiroldegian euskara gehiago entzuten da, kontratazioaren ondorioz.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Jarrera bai, baina funtzionamendua hankamotz. Zuzendaritza eta batzordeen menpe geratzen da, eta asko aldatzen dira ardurak.</li><li>• Kontratazio, hornitzaileen kasuan, aukera gehiago gaztelaniaz, eta ez dugu gai hau behar beste lehenesten.</li><li>• Euskalgintzatik kostatzen da mezu / dinamika erakargarriak ematea</li><li>• Hiztegi falta (kirola/futbola)</li><li>• Herrira proiektatzen den irudia euskara da, baina barruko funtzionamenduan erdara asko entzuten da. Batek gaztelaniaz egiten badu, denok pasatzen gara.</li><li>• Boluntarioen lanean oinarritzen da eta horiek ez dira beti euskaldunak</li></ul>
ELKARTEAK: MAPA	
INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Baserri auzoak</li><li>• Kiroldegia</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Lan-mundua</li><li>• Futbola</li><li>• Auzo batzuk erdaldunak</li></ul>

Talde honetan eta hizkuntza-politikaren taldean, herriko mapan oinarrituta, leku bakoitzean zenbat euskara erabiltzen den islatu genuen. Talde bietan oso antzeko emaitzak jaso genituen:

- Euskararen lekuak: baserri inguruak, eta herriko erdialdeko inguruak
- Gaztelaniaren lekua: erdialdea, futbol-zelaia, enpresak, Sagar erreka auzoa...





## 4. Diagnostikoa

GAZTEAK: ONDORIOAK	
INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Testuinguru formala</li><li>• Euskara erabiltzeko eta indartzeko borondatea dago</li><li>• Egindako azterketan, gazteok talde gisa euskara esparru guztietan erabiltzeko nahia agertu dugu</li><li>• Instituzio publiko gehienetan euskaraz hitz egiten da</li><li>• Antolatzen diren ekimenak euskaraz direla</li><li>• Badagoela euskal giroa sortzeko ahalmena</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Herriko zentrotik kanpo erdara gehiago entzuten da</li><li>• Euskarazko komunikabide falta dugu</li><li>• Taberna eta komertzioetan erdara presentzia handiagoa dago</li><li>• Futbol taldeetan erdarak presentzia handia du</li><li>• Gazteen lokalak erdararaz</li><li>• Lagunartea</li><li>• Aisialdia</li></ul>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Telefono bidezko elkarrizketak euskaraz izaten dira, baita lehenengo hitza ere.</li><li>• Familia giroan euskara erabiltzen dute.</li><li>• Jaiak hein handi batean euskaraz bizi dituzte.</li><li>• Irratian euskararen presentzia handia (Euskadi Gaztea).</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ezezagunekin gaztelania erabiltzeko ohitura.</li><li>• Ordenagailuko kontuak gaztelania erabiltzen dituzte, oro har, baita aisiarekin zerikusia dutenak: egunkariak, aldizkariak, internet, telebista, sakelako telefonoa.</li></ul>

Gazte euskaldunak baino ez dugu erakartzea lortu eta hori egiten duten diagnostikoan igarri egiten da.









## 4. Diagnostikoa

### EUSKARALAGUNAK

#### AURKEZPEN OROKORRETIK ONDORIOAK

- El 46 % tiene como lengua materna el euskara, es un porcentaje alto. ¿Por qué no se utiliza más?
- El porcentaje de utilización del euskara en casa también es más bajo que el de la lengua materna.
- El porcentaje de uso del euskara en las relaciones con el Ayuntamiento nos parece muy bajo.
- Siendo el potpurri de culturas que hay en el pueblo, el nivel de conocimiento es alto, lo cual no se refleja en el uso.

#### NOLA BIZI DUTE?

- He sentido la necesidad “social” de saber euskara, para poder relacionarme.
- Siempre me he manejado bien a pesar de no saber euskera. Laboralmente no he notado la necesidad de saber euskera.
- Estoy encantada de que mis hijos aprendan euskera y lo utilicen.
- Tenemos que aprender a convivir. Respeto de ambas partes.
- Los euskaldunes no lo utilizan, y no nos ayudan demasiado; no “se lo trabajan” para acercarnos al euskera.
- Hay que hacer divertido el uso del euskera. Harían falta más actividades lúdicas o de ocio relacionadas con el euskera, pero teniendo en cuenta a los que no sabemos, que no sean solo en euskera.
- Hay una imposición, y eso no sirve, algunas cosas son solamente en euskera: Las publicaciones (revista local, por ejemplo) son para todos/as, no deberían ser en euskera solamente, deberían traer un pequeño resumen en castellano. Si solo están en euskera, no te dan ganas ni de abrirlas. Si tienen una parte en castellano, nos da curiosidad. Por otro lado, no dan ganas de ir a las reuniones que se plantean desde el Ayuntamiento, es todo en euskera y para no enterarnos no vamos. Si hicieran como hoy, aunque sea un resumen en castellano para los que no entendemos...
- Se nos pide que aprendamos euskara, pero el horario de las clases no es para nada compatible con el trabajo.
- La política lo fastidia todo.
- Hay cierto rechazo hacia el euskera debido a la discriminación sufrida en otra época.

#### EUSKARAREN IBAIA



- He empezado a navegar y a gusto; no es difícil. Quiero meterme en el río (euskara) pero me da.. no me atrevo, me aferro a las hierbas.
- Las orillas son el castellano y mientras pasas el puente oyes el sonido del río (euskera), para volver de nuevo a la otra orilla (castellano). ¡¡NO TE MOJAS!!
- No vascoparlantes: con voluntad y sin mucha opción.
- Vasco parlantes: sin saber ayudar a cruzar el río.





## 4. Diagnostikoa

Euskararen lagunen taldea bereziki landu nahi izan dugu sentimenduen alderdia. Hori dela eta, talde bitan jarrita, herrian Euskara zelan bizi duten islatu zuten.






## 4. Diagnostikoa

LAN-MUNDUA: ONDORIOAK	
INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Merkataritzan lan egin da</li><li>• Herrian, sentsibilizazioa badago</li><li>• Euskara planak edo egitasmoak abiatzeko laguntzak eta arlo horretan dagoen eskarmentua</li><li>• Ikasketa profesionalak euskaraz egin ahal izatea</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Merkataritzan egindako lanak ez du behar besteko eragina izan</li><li>• Baliabide gutxi edo ezer ez (enpresetan)</li><li>• Lan-eremuak ez daude euskaldunduta</li><li>• Erdarara pasatzen gara errez</li><li>• Ikastolarekin batera euskara galdu da kalia</li><li>• Lan-mundua euskalduntzeko borondatea baino gehiago behar da.</li></ul>



## 4. Diagnostikoa

HIZKUNTZA-POLITIKA: ONDORIOAK	
INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Hizkuntzaren presentzia publikoa handia da: hizkuntza-paisaia, ekitaldi publikoak...</li><li>• Gehienok euskaraz dakigu (% 56) eta ia euskaldunen kopurua handia da (erabiltzeko aukerak)</li><li>• Euskaltzaleen mugimendua handia da eta ezagutza eskuratzeko baliabideak badaude (euskaltegia, eskolan D eredu)</li><li>• Udal agintarien aldetik euskararen aldeko jarrera irmoa dago</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Arlo formalak ez du asmatzen, nora eza. Bide berriak urratu behar dira.</li><li>• Kontzientzia falta erdararen bizi-indarrari aurre egiteko.</li><li>• Atzera goaz: Umeen erabilerak behera egin du; etorkinen bigarren generazioa ez da euskalduna, orain guraso direnak; ama-hizkuntza gaztelania bakarrik dutenak gora egin du.</li><li>• Udal barruko erabilera (idatzizkoa) handitzea</li><li>• Udalaz kanpoko administrazioan zeregin handia dago oraindik (Osakidetza, Bake Epaitegia...)</li></ul>
HIZKUNTZA-POLITIKA: MAPA	
INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Baseri auzoak</li><li>• Eskaintza kulturala</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Lan-mundua</li><li>• Futbola</li></ul>





## 5. Ondorio nagusiak

### 5.1. Lan-mahaietako ondorioak:

Hauek dira lan-mahaietan herritarrekin batera landutakotik ateratako ondorioak esparruka antolatuta:

#### Familia bidezko transmisioa:

Ondorioak
<ul style="list-style-type: none"><li>• Familian ez zaio garrantzia nahiko ematen</li><li>• Gurasoenganako komunikazioa sinplifikatu egin behar luke eskolak</li><li>• Eskolak elkartzerakoan (ikastola / ikastetxe publikoa) erdara gaineratik jarri da</li><li>• Euskaldunak ez direnek ematen dioten balore falta</li><li>• Hizkuntza gutxitu bat izatearen handikapa daukagu</li></ul>
Helburua
<ul style="list-style-type: none"><li>• Familia euskaldunetan transmisioa bermatzea eta familia mistoetan bultzatzea.</li></ul>

#### Hezkuntza:

Ondorioak
<ul style="list-style-type: none"><li>• Ume euskal hiztunek 3.mailan edo adinarekin batera erdara beste posibilitate berri baten moduan ikusten dute.</li><li>• Haurren portzentaje oso handi bat euskara ez dakiela eskolaratzeen da</li><li>• Haur eta gazte gehienek errazago berba egiten dute gaztelaniaz euskaraz baino, eta horrek erabileran zuzenean eragiten du</li><li>• Eskolak elkartzerakoan erdara gaineratik ipini da.</li><li>• Familian ez zaio garrantzia nahiko ematen.</li><li>• Hezkuntza ez formalean egiteko dagoen lan guztia</li><li>• Etorkinen kopurua oso handia da eta horiek guztiak euskalduntzeko baliabide gehiago behar da, nola ikastetxeetan, hala hezkuntza ez formaleko ekintzetan</li></ul>
Helburuak
<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskararen ezagutza bermatzea eta euskarari prestigioa ematea.</li><li>• Eskolaz kanpoko prestakuntza-jardueretan euskararen erabilera areagotzea.</li><li>• Euskarazko ereduak sustatzea.</li><li>• Eskola-orduetan euskara gehiago erabiltzea.</li></ul>



## 5. Ondorio nagusiak

### Euskalduntzea eta alfabetatzea:

<b>Ondorioak</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Batzuen iritziz, ordutegiak ez dira oso egokiak izaten lanean ari den jendearentzat.</li><li>• Aukera formaletatik kanpoko ekintza gutxi daude.</li></ul>
<b>Helburuak</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskararen aldeko motibazioa eta euskararen erabilera handitzea herritarren artean.</li><li>• Ulermen maila dutenak salto egitera eta ez dakitenak ikastera animatzea (etorri berriak)..</li></ul>

### Administrazioa:

<b>Ondorioak</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Arlo formalak (administrazioak) ez du asmatzen euskararen erabileran eragiteko; gainera, nora eza nabari da, helburu zehatzik gabe. Bide berriak urratu behar dira.</li><li>• Kontzientzia falta dago herrian erdararen bizi-indarrari aurre egiteko.</li><li>• Atzera goaz: umeen erabilerak behera egin du; etorkinen bigarren generazioa ez da euskalduna, orain guraso direnak; ama-hizkuntza gaztelania bakarrik dutenak gora egin du.</li><li>• Udal barruko erabilera (idatzizkoa) ez da behar bestekoa</li><li>• Udalaz kanpoko administrazioan zeregin handia dago oraindik (Osakidetza, Bake Epaitegia...)</li></ul>
<b>Helburua</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Udal barruko jardunean euskararen erabilera lehenestea eta gainontzeko erakundeetan eragin.</li></ul>



## 5. Ondorio nagusiak

### Arlo sozio-ekonomikoa:

Ondorioak
<ul style="list-style-type: none"><li>• Merkataritzan egindako lanak ez du behar besteko eragina izan</li><li>• Baliabide gutxi edo ezer ez (enpresetan)</li><li>• Lan-eremuak ez daude euskaldunduta</li><li>• Erdarara pasatzen gara errez</li><li>• Ikastolarekin batera euskara galdu da kalia</li><li>• Lan-mundua euskalduntzeko, borondatea baino gehiago behar da.</li><li>• Elkarteen funtzionamendua hankamotz. Zuzendaritza eta batzordeen menpe geratzen da, eta asko aldatzen dira ardurak.</li><li>• Kontratazio, hornitzaileen kasuan, aukera gehiago gaztelaniaz, eta ez dugu gai hau behar beste lehenesten.</li><li>• Hiztegi falta dugu (kirola/futbola)</li><li>• Elkartean, herrira proiektatzen den irudia euskara da, baina barruko funtzionamenduan erdara asko entzuten da. Batek gaztelaniaz egiten badu, denok pasatzen gara.</li><li>• Boluntarioen lanean oinarritzen da eta horiek ez dira beti euskaldunak</li></ul>
Helburua
<ul style="list-style-type: none"><li>• Herriko arlo sozioekonomikoan euskara gehiago erabiltzea</li></ul>

### Aisia eta kirola

Ondorioak
<ul style="list-style-type: none"><li>• Haurren ekitaldiak euskaraz izan arren, gaztelaniaz presentzia handia du, inguruak eraginda.</li><li>• Helduen arteko harremanak aisialdi-guneetan, batez ere, gaztelaniaz izaten dira.</li><li>• Futbol taldeetan erdararak presentzia handia du.</li><li>• Begirale batzuk ez dute euskarazko maila egokirik.</li><li>• Kirol-eskaintzan euskararen erabilera ez dago araututa (haurrentzako %, gazteentzako %, helduentzako %).</li><li>• Kirol bakoitzeko arduradunaren sentsibilizazioaren arabera izaten da euskararen presentzia.</li></ul>
Helburua
<ul style="list-style-type: none"><li>• Ekintza erakargarri berriak antolatzea euskaraz ez dakitenak hurbiltzeko eta euskaldunek jarraitzeko.</li><li>• Herriko kirol jardueretan euskara lehenesteko urratsak ematea.</li></ul>



## 5. Ondorio nagusiak

### Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

#### Ondorioak

- Euskarazko eskaintza-kopurua txikia da.
- Euskara hutsezko eskaintzak jarraipen handirik ez du (Berria,...).
- Ordenagailuak, sakelakoak, softwarea euskaraz erabiltzeko ohiturarik ez dugu.
- Dagoen eskaintzaren berri ez dugu, eta gainera ez dugu premiarik nabaritzen.
- Teknologia berriak modernotasunarekin lotzen dira eta euskarak horretan dituen aukerak ez ditugu ezagutzen eta ez ditugu erabiltzen.

#### Helburua

- Teknologia berriak euskararen erabilerarako erreminta moduan erabiltzea.

### Sentsibilizazioa eta motibazioa

#### Helburua

- Euskaltzaleen sarea eta egiturak sortzea.
- Euskararen erabilera areagotzea esparru guztietan.
- Herritarrak euskararen egoeraz sentsibilizatzea.
- Euskaldun liderrak baliatzea.
- Euskara prestigiatzea.
- Euskaldun eta euskaraz ez dakitenen arteko zubiak eraikitzea.
- Kultura desberdinetako jendea euskararen mundura erakartzea.



## 5. Ondorio nagusiak

### 5.2. Lan-mahaietako ondorioen kontrastea:

Prozesuaren gidaritza eraman duen batzorde teknikoak beharrezkoa ikusi du lan-mahaietako ondorioei orraztu bat ematea.

Lan-mahaiek eztabaidarako tarte mugatua izan dute, behar baino txikiagoa, eta, horrek, diagnostikoan behar beste sakontzeko eta lan-mahaietako partaideek esandakoak gainontzeko partaideen iritziekin kontrastatzeko aukerarik ez du eman.

Ondorioz, aurreko puntuan jasotako hainbat baieztapen lan-mahaietako pertsona bakarren uste edo iritzia dira gehiago errealitateari fideltasunez erantzuten dioten balorazioak baino.

Horregatik, esan bezala, jasotakoak egiaztatzeko ariketa egin da, horretarako Euskararen Aholku Batzordea erabiliz. Bertan administrazio, euskalgintza, hezkuntza eta aisialdi arloko hainbat eragile elkartzen denez, kontraste lan hori egiteko gune egokia iritzi zaio.

Aipatutako batzordeak banan-banan aztertu ditu lan-mahaietako ondorioak, batzuk osatuz eta beste batzuk behin betiko diagnostikotik kanpora utziz.

ONDORIO KONTRASTATUAK	
INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
<ul style="list-style-type: none"><li>• Udal agintarien aldetik euskararen aldeko jarrera irmoa da.</li><li>• Hizkuntzaren presentzia publikoa handia da ( hizkuntza paisaia, ekitaldi publikoak...)</li><li>• Antolatzen diren ekimen gehienak euskaraz antolatzen dira.</li><li>• 0-16 urte bitartean herritar ia guztiek dakite euskaraz.</li><li>• Herritarren erdia baino gehiago dira euskaldunak eta ia euskaldunen kopurua altua da.</li><li>• Herrian badago euskararen aldeko jarrera. Oso gutxi dira kontrako jarrera dutenak.</li><li>• Euskaltzaleen mugimendua handia da.</li></ul>	<ul style="list-style-type: none"><li>• Euskara dakitenen portzentajeak behera egin du azken urteetan.</li><li>• Atzera goazenaren sententzia dago: haurren erabilera gutxitu egin da, etorkinen 2. belaunaldia ez da euskaldundu eta ez da euskara transmititzen ari. Ama hizkuntza moduan gaztelania duten haur eta gazteen kopurua oso handia da.</li><li>• Haurren portzentaje altu bat euskara ez dakiela eskolaratzen da.</li><li>• Haur eta gazte gehienak gazteleraz hobeto moldatzen dira eta horrek zuzeneko eragina dauka erabileran.</li><li>• Hurrek, nagusitzearekin batera, gaztelera aukera berri moduan ikusten</li></ul>





## 5. Ondorio nagusiak

ONDORIO KONTRASTATUAK	
INDARGUNEAK	HOBETU BEHARREKOAK
